

BERRIA eskuetan, Egunkaria gogoan

Danel Barrientos, Ioritz Garcia, Eider Puy eta Matixa Etxeberria
2025eko otsailaren 13a

Egunkariaren historia ahaztua dela ematen du, orain dela 22 urte izan zelako, baina herritar askok ezin izango dute bizipen hura ahaztu. Euskara hizkuntza minoritarioa zen eta da; eta Egunkariari egindakoak are gehiago zehazten du.

Egunkariaren itxiera

2003ko otsailaren 20an, 300 Guradia zibilek itxi zuten Egunkaria.



Argiak esaten duen bezala: “10 pertsona atxilotu dituzte eta 5 egunez torturatu eta inkomunikatu dituzte”, atxilotutako 10 pertsona horiek honakoak izan ziren; Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Xabier Oleaga, Luis Goia, Inma Gomila, Fermin Lazkano, Pello Zubiria eta Xabier Alegria.

Eider Goenagak, BERRIAko zuzendari ordeak, esan du: “Hainbeste lan egin dugu hau aurrera ateratzeko, eta kolpe bakar batean inolako arrazorik gabe izan zen, ez dagoelako arrazorik Egunkaria ixteko. Nolako injustizia da hau”.

Elkarrizketatuak azaldu duen bezala horrela izan ziren itxierare hurrengo egunak: “Tentsio handiarekin pasa genituen ondorengo egunak, guk bagenekien egunkari bat egiten eta talde batek egunkari bat egiten bazekien, eta banatu egin ginen.”

“Bostetan edo horrela lankide batek deitzen dizu bulegotik esanez Guardia Zibila sartu dela zure lantokian atxilotu dituela zure lankideak eta lantokirik ere ez duzula eta ez dezula lanik izango”

Egunkaria eta euskaldunen batura



Eider Goenagak adierazi duenez, goizeko bostetan langileak Andoainera gerturatu zirenean, jende pila hurbildu zitzairen lokalak eskaintzera lanean jarrai zezaten eta babes handia sentitu zutela onartzen du.

Egunkaria itxi eta bi egun geroago manifestazio izugarria izan zen Donostian. Argia plataformak adierazten duenez: “Egunkaria aurrera. Bai euskarari” leloarekin. Bertan, 2003ko otsailaren 22an politikoak sindikangiltzakoak, kulturakoak eta gizarteko eragilekoak batu ziren herritarrez gain. Jendez beteta egon zen Kontxako pasealekua, jende ugari bildu zen bertan Egunkariako langileei bebesa adierazteko.

Manifestazioak Kontxa Pasealekuko tunela pasa zuen BERRIAko zuzendari ordeak, oso momentu berezia izan zela adierazi du: “Jendearen txaloak, jendearen ohiuak, egiten duen oihartzuna; eta momentu hori izan zen (...), herri hau guzti gurekin dago sentitzen duzula, hartu egiten zaituela elkartasunak eta eramaten zaitula airean.”

“Hor denak lehertu ginen negarrez, negarrez, oso hunkigarria da hainbeste jendek babesten zaituela sentitzea”

BERRIAren historia

BERRIA euskara hutsean argitaratzen den eta Euskal Herri osoan dagoen egunkari bakarra zen hasi zen garaian, euskara hizkuntza txikia baita. Eider Goenagak dioenez: “Heuskal herriak bazeukan irratia, bazeukan telebista, baina egunkaririk ez”.



Euskaldunon Egunkaria itxi ostean, BERRIA sortu zuten.

Egunkari hau, euskara hutsean dago eta hedabideen helburu nagusia euskaldunak euskara hutsezko komunikade bat eskuragarria izatea da, horregatik, sortu zuten BERRIA egunkaria Euskaldunon Egunkaria itxi ostean.

Euskaldunak ez ziren isilik gelditu, horren ondorioz, Euskal Herrian protestak egin ziren baita diru bilketak ere, manifestazioak... BERRIAren irikiera lau hilabete geroago egin zuten. 2010ean Euskaldunon Egunkaria arrazoirik gabe itxi zela ebatzi zuen Espainiako audientzia Nazionalak. BERRIAk, 2018an bere hamabosgarren urtea ospatu zuen.

“Egun hartan, atera zen egunean, egin zen halako festatxo bat eta zorionez kazetariak lanean ari ginen, guk egin behar genuen hori egiten, alegia, idazten

BERRIAren gaur egungo egoera

Eider Goenagak dioenez, BERRIA aldizkaria “badoa”, baina merkatua oso gainbeheran doa. Orain paperezko egunkaria eta edizio digitala ere badago, horregatik orain jendeak edizio digitala erabiltzen du. Jada webgunea eta sareak ere baditu. Eiderrek dioenez, orain ikus-entzunekeo bideoak eta podkastak ere egiten dituzte.

“Uste dut, nahiz eta periodiko txikia izan beste periodiko handien mailan gaudela”

Eider Goenagak dioenez, BERRIAren kezka bat gazteak dira, azkenean gaur egun gazteak direnak etorkizunean egunkaria irakurriko dutenak dira. Beraien kezka bat gazteak nola erakartzea da, horretarako udararo unibertsitatetik atera berriak diren hamabost gazte hartzen dituzte eta horietatik zazpi jarraitzen dute. Haiek gazteentzako gai interesgarriak direnak esaten aritzen dira.

BERRIAko langilea den Julen Etxeberriak dioenez proiektua erabat sendotua dago, etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest; hala ere, horretarako jendearen babesa behar dutela dio.

</